

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



La flor de las cenizas

Santos Domínguez Ramos

KUTXA FUNDazioA

86 orrialde

6 euro

Gaztelaniazko Irun Hiria saria

Kutxa Fundazioak antolatutako Irun Hiria literatur lehiaketako gaztelaniazko olerki saria irabazi zuen Santos Domínguez Ramos-ek (Cáceres, Espainia 1955) pasa den urtean. Makina bat poesia lan idatzitakoa da Domínguez eta sari ugari irabazi ditu horiei esker. Besteak beste, Espainiako Hezkuntza Ministerioak ematen Sari Nazionala eskuratu zuen 1983an, *Cavernas de Piedra* lanarengatik. 2004an Gerardo Diego Saria bereganatu zuen *Tres retratos del frío* obrari esker, eta nazioarteko Jaime Gil de Biedma y Alba lehiaketan saridun izan zen 2005ean *Dípticos del infierno* izeneko olerki multzoarekin.

Urteen joan-etorriaz eta heriotzaz dihardu Domínguezek *La flor de las cenizas*en, eta hitzek bizitza eta heriotzaren artean bete dezaketen funtzioaz. ■



Jainkoaz beste berri batzuk

Manuel Olasagasti Gaztelumendi

UTRIUSQUE VASCONIAE


240 orrialde / 22 euro

Egiazko Jainkoa aldarrikatzeko egindako saioa

Manuel Olasagasti Gaztelumendik (Lezo, 1924) Erljioaren Filosofia irakatsi du urte luzez, eta 30 urte baino gehiago jardun da teologiako idazlanak itzultzen. Filosofia garaikidearen eta erlijio arazoen arteko harremanak aztertu ditu, esaterako, *Raíces cristianas de Ortega* eta *Ausencia de Dios y experiencia de lo sagrado en el pensamiento de Heidegger* saioetan. Baditu beste bi saiakera ere, *Introducción a Heidegger* eta *Estado de la cuestión de Dios*. Utriusque Vasconiaeren eskutik aurkeztu duen *Jainkoaz beste berri batzuk* idazlanean, Agustín Ezeizak egindako itzulpena agertzen zaigu. Hau da, *Otras noticias de Dios* argitaratzeko dagoen lanaren itzulpena. Liburuan Manuel Olasagastik zuhurtzian oinarritutako pobreaken filosofia aldarrikatzen du egiazko Jainkoa aurkitzeko bidean. ■

Euskal punk zale baten ibilbidea

Bere bizitzako gau zoriontsuenaren ondoren, euskal punk zale batek ezusteko mingotsa izango du, etorkizuna baldintzatuko dion ezustea. Gustuko duen neskak haur txiki bat zaintzeko agindua dauka. Haurra lo dagoelakotan, lasai ekin dio "lanari" neskak, ez hainbeste mutilak, umea noiz esnatuko beldurrez baitago. Eta halaxe gertatuko da. Beroaldirik handienez daudenean haurra negarrez hasiko da. Larrua jotzeari utzi eta umea beso artean hartzea besterik ez du egingo mutilak, baina neskaren ama gelan agertuko da eta gaztea larrugorritan ikusi; pedera-tatzat hartuko du eta salaketa jarriko dio. Ondorioz, *Azalore atomikoa* eleberriko protagonistak alde egin beharko du atzerri. Londres ezagutuko du, baita Afrika eta Herbehereak ere. ■



Azalore atomikoa

Mikelats Gorroto

HIRIA

532 orrialde

Zientzia letren kontra?

Munduan argia egiteko bi kode omen daude, hitzena eta zenbakiena, hau da, intelektual literarioa eta zientzialariena, eta bi kode horiek gero eta urrutiago egi daude elkarrengandik. Horrela agertu zuen egoera Cambridgoko unibertsitatean C. P. Snow zientzialariak 1959an. Ia berrogeita hamar urte geroago hark esandakoekin bat eginez euskarara itzuli du Iñaki Irazabalbeitiak C.P. Snow-ren *Bi kulturak*, denbora-ren eta distantziaren iragazkia aplikatuta, kezka hori egungo Euskal Herrira ekarriz, atariko mamitsuan. Irazabalbeitiaren ustez kultura literarioa hasi da zientziaren kultura bestelako begiz ikusten Euskal Herrian. Aldaketa horren printzak sumatu ditu Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunean adibidez. Alabaina, hezkuntzan urrats handiak daude egiteko, bere esanetan. ■



Bi kulturak

C.P. Snow

ELHUYAR

104 orrialde

12 euro



Klara zirimola
Braulio Llamero.
Eider Eibar

EREIN
 64 orrialde
 6,60 euro

Ahizpa txikia izatearen gorabeherak

Rosetta Testu Zerbitzuak euskarara itzuli duen Braulio Llameroren *Clara no para* istorioaren kontalaria bost urteko neskatila da. Geldirik egoten ez dakien ahizpa txikia du, eta hari buruz mintzo zaigu narrazioan. Ahizpa zaharrenarentzat Klara zirimola da. “Ez al zara pixka batean geldirik egongo?” galdetzen dio ahizpa nagusiak bi urteko umeari askotan, nazkatzen duen bakoitzean bereziki. Eta Klarak hizketan ez badaki ere, hitz bat ikasi du behintzat: ez! Horixe erantzuten dio bere ahizpa zaharrenari geldirik egoteko eskatzen diotenean: ez! Okerrena, ordea, ez da hori, baizik

eta Klara iritsi zenetik gurasoek ahizpa zaharrena ez dutela besoetan hartu nahi izaten... I

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 25. urteurrena

Hogeita bost urte bete ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak. Imanol Olaizolari zor zaio sorrera, hark bereganatu baitzituen Ramon Labaien kultura sailburuaren eta Karlos Garaikoetxea lehendakariaren oniritziak, gerra garaiko Eresoinka euskal abesbatza nazionalaren jarraipena izan zitekeena antolatzeko. *Primo tempo* liburuan Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren mende laurden honetako nondik norakoak azaltzen dira, baita CD bat ere, EOSek jotako hainbat pieza biltzen dituenena. I

Primo tempo

Batzuen artean

KUTXA FUNDAZIOA
 130 orrialde / 35 euro



ANA EIZAGIRRE SAGARDIA

«Euskaltzaletasunaren zeinu bihurtu zen Euzkel Egutegiya»

Zein da zure azken saio honen muina?

Herri-irakurketaren azterketari eman diot arreta. Zehazki, XIX. mende bukaeran eta XX.eko lehenengo bi hamarkadei –gaztelaniazko alfabetatze eskolatuaren errotze indartsua eman zen garaian–. Eta Gipuzkoan argitaratu ziren euskal egutegiak hartu ditut gaitzat.

Egutegi horietatik, zein nabarmendu zen bereziki?

Luzaroan argitaratu eta irakurle kopuru nabarmena bildu zutenak *Euzkel-Egutegiya* (1019-1934) eta *Euzkel-egutegi txikiya* (1910-1920?) izan ziren; mamiz berdinak, “Parrez euskeraz irakurri errez” leloari estuki jarraitzen zioten, bata horma egutegi gisa, besteak sakelako egutegiaren erdua finkatuz. Egutegia bultzatu zuten euskaltzaileen asmoa, euskarazko irakurketa atsegina, gustagarria eta erraza egitea zen; baita herritarren formazio kulturala eta heziketa moral eta erlijiosoa bultzatzea ere. Dena den, azpimarratu behar da egutegi hauek zuten izaera euskaltzalea. Hainbat lan argitaratu zen bertan herritarren euskotar izaera sendotzeko asmoz eta, batez ere, herritarren hizkuntza maila hobetzeko xedez. *Euzkel Egutegiya* herritarren euskaltzaletasuna –ahozko zein idatzizko adierazpenean– bultzatzea zuen helburu, baina izan zuen arrakastagatik, eta herritarren ohituretan hartu zuen lekuagatik, berau bihurtu zen euskaltzaletasunaren zeinu.

Zergatik jarri diozu azterketari titulu hori?

Izaera entziklopedikoa zuen *Euzkel-Egutegiya* eta familia euskaldun askotan eskuliburuaren funtzioa bete zuen. Horregatik izendatu dut euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburu.



IMANOL OTEGI / A.P.

Euskarazko irakurketa herri xehearen baitan

Iluntzero egutegiari kendutako orritxoak irakurtzeko gonbita egiten zion amona Alejandrari eskaini dio Ana Eizagirre Sagardiak (Usurbil, 1962) *Euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua* saiakera. Bigarren titulua ere badu liburu honek, azterketaren gaiari lotua: *Euskarazko egutegiak eta euskarazko irakurketa espazio pribatuan. 1876-1918*. Gipuzkoar gehienek menperatzen ez zuten hizkuntzaz –gaztelaniaz– bideratu ohi zen eskola instruzioa nagusi zen garaira garatzea Ana Eizagirrek. XIX. mendeko azken urteetan hasi eta XX. mendeko aurreneko bi hamarkada hartu ditu tesi honetako ikergaiak. *Euzkel-Egutegiya* herri hezkuntzaren eta herri irakurketaren historian izandako garrantzia ulertzeko oso interesgarria da garai hau. Gaztelaniaz alfabetaturiko eus-



Euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua

Ana Eizagirre Sagardia

UTRISQUE VASCONIAE

362 orrialde

kaldunei egokitzen zen erabilitako ortografia, gehienei irakurtzen eta idazten euskaraz irakasten ez zitzaaien aldian. Eredutzat ahozko hizkuntza hartzen bazen ere, egutegiok, dotrinak iragarritakoeekin eta bertso paperekin batera, orduko irakurketak ziren. Eta *Euzkel-Egutegiya* euskaldun zintzoaren erdua osatzen zuten balioen multzoa lortzera zetorren. ■

egileari galdezka